



PASAI ANTZO ATEZ ATE:

**HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIORAKO ETA
EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2013**
PROCESO DE INFORMACIÓN, FORMACIÓN Y APORTACIONES
CON LA CIUDADANÍA, 2013

SAIOAREN AKTA ACTA DE LA REUNIÓN

BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

Bilera zenbakia/Número de reunión : 1
Xede taldea/Grupo de trabajo: euskarazko taldea
Data : 2013-XI-18

Lekua/Lugar: Kultur Etxea
Hasiera ordua/Hora de inicio: 19:30
Amaiera ordua/Hora de finalización: 21:10

DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN

Alkatea/Alcaldesa: Amaia Agirregabiria
Zinegotziak/Concejales: Izaskun Biurrun (Antxoko alkateordea) eta Oihane Oronoz (Donibaneko alkateordea)
Proba fisikoa/Prueba física: Oihane Oronoz eta Juanra Cano (zinegotziak)
Gonbidatua/Invitada: Rosa Mari Sistiaga
Dinamizatzaileak/Dinamizadores: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Maitane Barrenetxea
Parte-hartzaile kopurua: 61 (32 emakume eta 29 gizon)



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA/ *BIENVENIDA Y PRESENTACIÓN*

Alkateak bertaratutakoei ongi-etorria eman die; prozesuaren zioa eta helburuak aipatu ditu, eta mahaian dauden udaleko kideak eta aholkulariak aurkeztu ditu.

2. PROZESUAREN ETA BILERAREN AURKEZPENA/ *PRESENTACIÓN DEL PROCESO Y LA REUNIÓN*

Aztikerreko dinamizatzailleak prozesuaren aurkezpena egin du; helburuak, lantaldeak, bilerak eta metodologia azaldu ditu. Era berean, gaurko saioaren aurkezpena eta eguneko bileraren helburuak, partaideak, egitura eta metodologia azaldu ditu. Bukatzeko, gaurko saioan elkarri entzuteko eskatu du, eta errespetua ahalbidetzeko jarraitu beharreko hainbat arau ere azaldu ditu.

3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/ *INFORMACIÓN SOBRE LA APLICACIÓN DEL SISTEMA*

Alkateak eta **Donibaneko alkateordeak** sistema ezartzeko erabakia eta argudioak azaldu dituzte, eta **Antxoko alkateordeak** sistema berriaren ezaugarri tekniko nagusiak zehaztu ditu (atalak, gaiak, bilketa egutegiak, esekitokiak, ordutegiak, hobekuntzak).

Ondoren, proba praktikoa egin dute Oihane Oronoz eta Juanra Cano **zinegotziek**. Bertan ikusi ahal izan da, gaur egungo hondakin bilketarekin zer zakar-poltsa sortzen den, eta atez atekoarekin zer zakar-poltsa sortuko diren. Era berean, bilketa berria nola egin daitekeen aurkeztu du Udalak.

4. HERRITARREN ZALANTZAK ETA KEZKAK JASOTZEA ETA LANTZEA/ *DUDAS, PREGUNTAS Y APORTACIONES DE LA CIUDADANÍA*

Herritarren zalantzak eta kezkek jaso dira, txanda irekiaren bidez. Dinamizatzaileak hiru multzotan sailkatu ditu:

- Zalantzak eta kezkek
- Ekarpenak eta proposamenak
- Iritziak

Ondoren alkateak, zinegotziek, teknikariak eta gonbidatuak izan dute galderei erantzuteko tartea. Jarraian, alkateak argitu ditu erabaki politikoari buruzko galderak, eta teknikariak, berriz, ezarpen prozesuari buruzko zalantzak eta kezkek.

Jarraian, aurkezten den taulan ikus daitezke jaso diren balorazio eta iritziak, zalantza edo kezkek eta egin diren ekarpenak:



BALORAZIOAK/IRITZIAK <i>VALORACIONES/OPINIONES</i>

ZALANTZAK/KEZKAK
DUDAS/PREOCUPACIONES

Esekitokiak eta lokalak non jarriko dira eta zein irizpideren arabera erabakiko da aukera bat edo beste?

2. errondako bileran proposamen zehatz bat ekarriko dugu udaletik. Ulertzen dugu ezin ditugula kale guztiak esekitokiz josi, Antxoko egiturak ez duela ahalbidetzen. Udalak proposamen bat egingo dio etxejabe-elkarte bakoitzari. Erabakia etxejabe-elkarte bakoitzak hartu beharko du adostasunez, eta erabakia jasotzen duen akta aurkeztuko dute. Halere, argitze aldera, eta Donibaneko esperientzia aintzat hartuta, hasierako joera esekitokiak etxetik urrun kokatzea da, eta eskaera asko jaso dira dagoeneko esekitokiak atarira hurbiltzeko eskatuz.

Ze ordutegi izango dugu?

Oraingoz erabaki gabe dago, 2. txandan egiten diren ekarpenekin hartu nahi dugu erabaki hau.

Noiz hasiko da sistema berria aplikatzen?

Aurki. Epeak oraindik zehaztu gabe daude. Erabaki batzuk hartu gabe daude eta horregatik prozesu honen emaitzak beharrezkoak dira sistemari "forma" emateko. Prozesu honek markatzen digunaren arabera izango dira ezartze epeak.

Donostiako aldearekin, Eskalantegirekin, zer geratuko da?

Gure asmoa pasaitar diren heinean, herritar hauei sistema berrira elkartzeko aukera eskaintzea da. Halere, egun Donostiako Udalarekin harremanetan gaude, auzi honen inguruan erabakiak hartu ahal izateko.

Kuboak anonimoak dira?

Pegatina bat daukate kuboek, identifikazio kode batekin. Kode horren "jabea" zein den udalak ezagutzen du, bilketan zuzenketak egin behar badira pertsona horiekin komunikazioa izateko. Baina kode horiek ez dira publikoak, eta, beraz, edozeinek ezin du jakin zeini dagokion kode bakoitza.

Poltsarik gabe geratzen bagara zer gertatuko da?

Udalak eskainiko ditu. Betiere muga bat jarri beharko da.

Poltsa konpostagarria kuboan jar daiteke?

Bai. Poltsek konpostagarriak izan behar dute, eta horiek herriko saltoki desberdinetan egongo dira salgai.

Zenbat denbora egongo dira hondakinak kalean?

Denbora hori ezartzen den ordutegiaren arabera izango da. Donibaneko ereduari erreparatzen badiogu, ordu gutxi batzuk baino ez daude kuboak bildu gabe kalean.

Zein izango da lokalen ordutegia?

Lokalak zehazten dugun ordutegi orokorrera egokituta egongo dira.




Lokaletako eta ekarpen guneetako giltzen funtzionamendua zein izango da?

Giltza elektronikoak izango dira, eta eskuragarriak izango dira beharren arabera.

EKARPENAK/PROPOSAMENAK
APORTACIONES/PROPUESTAS

Topoaren azpian biltokiren bat jartzea.

5. BILERAREN BALORAZIOA/ VALORACIÓN DE LA REUNIÓN

	Bilerako giroa <i>Ambiente de la sesión</i>	Erabilitako metodologia <i>Modo de trabajo</i>	Landutako edukia <i>Contenidos creados</i>
	XXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXX
			XXX
			

Bilera bukatutzat eman da Pasai-Antxon 2013ko azaroaren 18an gaueko 21:10ean.

HURRENGO HITZORDUAK:

DATA: abenduaren 4ean

LEKUA: Kultur Etxea

ORDUA: 19.30

Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!
¡Muchas gracias a todos y a todas por vuestra aportación!